

2. FITXA ARABA - Aurreikusi ezin diren egoerak direla-eta, toki-erakundeak finantzatzeko gai ez diren ustekabeko eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Arabako Lurralde Historikoko udalak (Vitoria-Gasteizkoa izan ezik) eta kontzejuak, ustekabeko premiazko gastuei eta larrialdiko obrei aurre egiteko.

Sarbide-esteka: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/ustekabeko-eta-larrialdiko-obrentzako-laguntzak>

Erreferentziako araudia: [Foru Gobernu Kontseiluaren 72/2024 Erabakia, otsailaren 20koa](#)

Eremuak: Larrialdiak

Zenbatekoa: 500.000 € (300.000,00 €, 2024. urtean, eta 200.000 €, 2025. urtean)

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/12/31 edo aurrekontua agortu arte.

Laburpena

Premiazko ustekabeko gastuak eta larrialdiko obrak finantzazioari aurre egiteko dirulaguntzen deialdia da helburua.

Laguntza-programa horretarako, esku-hartze azkar eta urgentea egiteko inbertsio ekonomikoa behar duten jarduketak hartuko dira ustekabetzat eta larrialdi-obratzat, hala nola, hondamendi naturalen, zein muturreko edo suntsipen handiko gertaera meteorologiko kaltegarrien (ur-denboraleak, haizeak, ur-goraldiak, etab.) edo bestelako egoera kaltegarri eta kontrolaezinen ondorioz izan diren edota epe laburrean gerta litezkeen istripuak; egoera horien kalteak saihesteko bideratutako jarduketak zein zerbitzu publikoak emateko ondasun publikoetan, etxebizitzetan edo bestelako higiezinetan kalteak eragin ditzaketen eta pertsonentzat benetako arriskua ekar dezaketen gertakariak konpondu edo minimizatzen bideratutakoak, baldin eta toki-erakundeek horiek finantzatzeko ezintasuna egiaztatzen badute.

Larrialditzat edo ustekabekotzat jotzeko, beharrezkoa izango da gertakaria **eskabidearen dataren aurreko bi hilabeteetan jazo izana**.

Toki-erakundeak jarduketak finantzatzeko gai ez direla ulertuko da, baldin eta gastua dagokion aurrekontuan sartuta ez badago, eta eskabidea aurkezteko unean gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin likidoaren eta finantzatu beharreko jarduketaren aurrekontuaren arteko ratioa 3 baino txikiagoa

bada eta deialdian nahitaez aurkeztu beharreko ziurtagiriak behar bezala egiaztatuta badaude.

Arabako kontzejuen kasuan, eskaeraren datan kutxan dauden izakinak hartuko dira erreferentziatuz. Kontzeptu horri une horretan esleituta dauden obretarako konprometitutako toki-erakundearen baliabide propioen zenbatekoa deskontatuko zaio.

Zenbateko hori organo instrukzio-egileko teknikariek beharrezkotzat jotzen duten dokumentazio gehigarriaren arabera berrikusi eta doitu ahal izango da.

Diruz lagun daitezkeen gastuak:

Honako gertakari hauek eragindako betebeharrak ekonomikoak lagundu ahal izango dira:

- a) Fenomeno naturalek eragindako kalteak.
- b) Arau aldaketek, eskumenak bereganatzeak edo administrazio publikoen ebazpenek ezarritako betebeharrak.
- c) Dagoeneko esleituta dauden eta halakorik ez duten eta hasieran antzeman ez diren azpiegitura edo ekipamenduei estankotasuna, egonkortasuna eta segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren obren aldaketak, betiere gabezia horrekin pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen bada.
- d) Aurreikusten gaitz direlako aurrekontuan sartu ezin izan diren gertaerak eta ezinbestean gertatzen direnak.
- e) Etxebizitzaren egonkortasuna edo han bizi diren pertsonak babesteko beharrezkoa den beste edozein egoera.

Inolaz ere ez dira onartuko betebeharrak hauek: interesak, errekaratuak, zehapenak (administratiboak zein penalak), ez prozedura judizialeko gastuak.

Laguntzen zenbatekoa eta mota

Lehia askeko dirulaguntzak dira.

Emango den dirulaguntza diruz lagun daitezkeen aurrekontuaren **% 100era** iritsi ahal izango da. Toki-erakunde bakoitzak gehienez **300.000 euroko** dirulaguntza jaso ahal izango du deialdi honetatik.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagundutako proiektua edo jarduketa **2024ko abenduaren 31 baino lehen** gauzatu behar da, salbu eta dirulaguntza emateko ebazpena 2024ko azken 5 hilabeteetan onartzen bada. Kasu horretan, obra egiteko gehieneko epea **2025eko ekainaren 30era** artekoa izango da.